larik, sektore publikoan dihartuten langileen ordainsari osoak ezin dira 2001 urtekoen aldean ehuneko 2 baino gehiago igo". Aipaturiko igoera hau oinarrizkoa da, artikulu beraren bosgarren atalak xedatzen duen bezala.

Era berean, lege berak 22.1.a) artikuluan xedatzen du funtzionario publikoen oinarrizko ordainsariak "2001 ekitaldirako ezarritakoen aldean ehuneko 2 igoko direla".

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren urtarrilaren 23ko 1/2002 Legearen bidez arautzen da 2002 urte hasieran Euskal Autonomia Erkidegoa zegoen aurrekontu-luzapeneko erregimena. ekitaldi horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Lege Proiektua onetsi gabe. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren langileen lansariei dagokienez 1/2002 Lege horrek lanpostu maila bakoitzaren destinu osagarriaren urteko zenbatekoa ezartzen du 9. artikuluan.

Azkenik, 2002ko urriaren 29ko Foru Dekretu bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko funtzionario-langileen lan-baldintzak onartu dira 2002 eta 2003 urteetarako. Dekretu horretan zehazten denez, oro har, Arabako Foru Aldundiko langile publikoen ordainsariak %2 igoko dira 2002 urtean. Hala ere, kontuan hartuko dira lanpostuen edukiagatik, egitasmo bakoitzera esleitutako giza-baliabideen aldaketagatik edo zehaztutako helburuen lorpen-mailagatik ezinbestekoak diren ordainsari-egokitzapenak.

Hori guztia dela eta, Lehendakaritza Saileko foru diputatuak proposatuta, apirilaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren 49/96 Foru Dekretua, Funtzio Publikoari buruzko Foru Organo desberdinen eskumena arautzen duen arautegia xedatzen duena, ikusita eta Diputatuen Kontseiluak gaurko egunean eginiko bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko funtzionario-langileen ordainsaria %2 igotzea kontzeptu guztietan, 2001eko urtea kontuan hartuta. Hala ere, kontuan hartuko dira lanpostuen edukiagatik, egitasmo bakoitzera esleitutako giza-baliabideen aldaketagatik edo zehaztutako helburuen lorpen-mailagatik ezinbestekoak diren ordainsari-egokitzapenak.

Bigarrena.- Erabaki honen lehenengo atalean zehaztutakoa aplikatzean Berariazko Osagarrien zenbatekoak aldatuko balira, Lanpostuen Zerrendan jaso beharko dira zenbateko horiek.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko azaroaren 29a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Lehendakaritza Saileko foru diputatua, ALFREDO MARCO TABAR.

retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2 por ciento con respecto a las del año 2001". Dicho incremento tiene carácter básico según establece el apartado cinco del mismo artículo.

El mismo texto legal señala asimismo en su artículo 22.1.a) que las retribuciones básicas de los funcionarios públicos" experimentarán un crecimiento del 2 por ciento respecto de las establecidas para el ejercicio de 2001".

Por otra parte, la Ley 1/2002, de 23 de enero, del Parlamento Vasco, por la que se regula el régimen de prórroga presupuestaria en la que se encontraba la Comunidad Autónoma al iniciarse el año 2002 sin la aprobación del Proyecto de Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para dicho ejercicio, establece, con relación a al retribución del personal al servicio de la Adminsitración General de la Comunidad Autónoma, en su artículo 9, la cuantía anual del complemento de destino correspondiente a cada nivel de puesto de trabajo.

Por último, mediante Decreto Foral, de 29 de octubre de 2002, han sido aprobadas las condiciones del personal funcionario de la Administración General de la Diputación Foral de Álava para los años 2002 y 2003, en las que se establece que para el año 2002 el conjunto de las retribuciones de los empleados públicos de la Diputación Foral de Álava se incrementarán con carácter general un 2 por ciento, sin perjuicio de las adecuaciones retributivas que resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo, variación del número de efectivos asignados a cada programa o por el grado de consecución de los objetivos fijados al mismo.

A propuesta del Diputado Foral del Departamento de Presidencia, visto el Decreto Foral del Consejo de Diputados 49/96, de 2 de abril, por el que se establece la normativa que regula la competencia de los distintos Órganos Forales sobre función pública, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Incrementar las retribuciones del personal funcionario de la Administración General de la Diputación Foral de Alava en un 2 por ciento respecto a las del año 2001, en todos sus conceptos, sin perjuicio de las adecuaciones retributivas que resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo, variación del número de efectivos asignados a cada programa o por el grado de consecución de los objetivos fijados al mismo.

Segundo.- Las cuantías de los Complementos Específicos asignados a cada puesto de trabajo que, por aplicación de lo previsto en el apartado primero del presente Acuerdo, se vean modificadas, se fijarán en la Relación de Puestos de Trabajo.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de noviembre de 2002.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Presidencia, ALFREDO MARCO TABAR.

*Foru Aginduak*

## HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

**6.768**

**958/2002 FORU AGINDUA, urriaren 23koa. Horren bidez, behin betiko onartzen da Barrundiako udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioak berraztertzeko espedientea.**

AURREKARIAK

Lehena.- 2002ko apirilaren 27an, sarrerako 7556 erregistro zenbakiaz, Barrundiako Udalak bidalitako ofizio bat jaso zen. Ofizio horren bitartez, Udal Planeamenduko Ordezko Arauen Berrazterketari behinbehineko onarpena eman zaiola jakinarazten zen. Horrekin batera ere espedientea bidaltzen zen, hala bazegokion, behin betiko onarpena eman ziezaioten.

Espedientea bidali ostean, Gabino Medina Lecuona jaunak, Román Ruiz de Azúa Ruiz de Gordoa jaunak eta Gebarako Administrazio Batzarburu den Luis Ganuza Ugalde jaunak izenpetutako hiru idazki bidali zizkioten Foru Aldundi honi. Idazki horietan hainbat eskaera egiten zuten.

Bigarrena.- Espedientea osatzen duten agiriek indarrean dauden Arau Subsidiarioak berraztertzea dute helburu. Agiri horiek aztertuta ondorioztatzen denaren arabera, hauek izan dira gertaera nagusiak izapidetzan:

*Ordenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PUBLICAS Y URBANISMO

**6.768**

**ORDEN FORAL 958/2002, de 23 de octubre, de aprobación definitiva del expediente de Revisión de Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Barrundia.**

ANTECEDENTES

Primero.- En fecha 27 de abril de 2002 y número de registro de entrada 7556 se recibió un oficio del Ayuntamiento de Barrundia mediante el cual se comunicaba la aprobación provisional de la Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal y remisión del expediente con el fin de que le fuera concedida la aprobación definitiva, si procediere.

Con posterioridad a la remisión del expediente han sido presentada en esta Diputación Foral tres escritos suscritos por don Gabino Medina Lecuona, don Román Ruiz de Azúa y Ruiz de Gordoa y don Luis Ganuza Ugalde como presidente de la Junta Administrativa de Guevara, en los que se articulan distintas peticiones.

Segundo.- Los documentos que componen el expediente tienen por objeto la Revisión de las Normas Subsidiarias vigentes y, de su examen, se desprenden los siguientes hechos fundamentales en su tramitación:

A. Planeamenduko Irizpideak, Helburuak eta Irtenbide Orokorrak eginda gero, Udalbatzak jendaurrean jarri zituen, hilabeteko epean, Planeamendu Araudiaren 125. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Horretarako, iragarkiak jarri zituen 2000ko maiatzaren 10eko Arabako Lurralde Historikoaren 52 zenbakiko ALDIZKARI OFIZIALean, 2000ko maiatzaren 10eko "El Periódico de Álava" egunkarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

Jendaurrean egon zen epean egin ziren 71 iradokizun eta alternatibak aztertu ondoren, udalak, 2000ko urriaren 6an egindako bileran, Arauen Irizpideak, Helburuak eta Irtenbide orokorrak onartu zituen eta onartu ere hainbat aldaketarekin.

B. 2000ko azaroaren 3an egindako osoko bilkuran, Udalak Planeamenduko Ordezko Arauen Berrazterketa behin-behinekoz onartzea erabaki zuen, bai eta hilabetez jendearen aurrean jartzea ere. Jendearen aurrean jartzeko, iragarkiak jarri zituen 2000ko abenduaren 4ko Arabako Lurralde Historikoaren 140 zenbakiko ALDIZKARI OFIZIALean eta 2000ko abenduaren 3ko El Correo eta El Periódico de Álava egunkarietan.

C. Jendearen aurrean jartzeko epean 38 alegazio aurkeztu ziren eta idazketa taldeak haien txostena eman ondoren Udalbatzak ebatzi egin zituen. Alegazioak onartu egin ziren eta, ondorioz, Arauen agirian aldaketak egin ziren. Aldaketa horiek behin-behinekoz onartutako planeamenduaren Irizpide eta Irtenbideetan ere funtsezko aldaketak ekarri zituzten. Hori horrela, Udalbatzak, 2001eko urriaren 5ean egindako bilkuran, espedientea jendearen aurrean berriro jartzea erabaki zuen. Horretarako, iragarkia jarri ziren 2001eko urriaren 31ko Arabako Lurralde Historikoaren 124 zenbakiko ALDIZKARI OFIZIALean eta 2001eko urriaren 19ko El Correo egunkarian.

D. Jendaurrean berriz jarri zen epe honetan beste alegazio batzuk aurkeztu ziren. Udalbatzak erabaki zuenez, 2002ko otsailaren 6an ebatziko ziren alegazio horiek.

E. 2002ko apirilaren 5erako deitutako bileran Udalbatzak Barrundiako Planeamenduko Ordezko Arauak Berraztertzeko espedienteari behin-behineko onespena ematea erabaki zuen, bai eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea ere han behin betiko onar zezaten.

Hirugarrena.- Martxoaren 5eko 35/1985 Dekretuko (Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen hirigintza arloko zerbitzuak Arabari transferitzeari buruzkoa) eranskineko a) idatz zatiko hirugarren puntuan xedatutakoarekin bat, espedientearen txostena eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, uztailaren 24ko 5/2002 bilkuran.

Laugarrena.- Berebat, Diputatuen Kontseiluak abenduaren 14an emandako 155/99 Foru Dekretuan arautkatakoari jarraikiz, espediente horri buruzko txostena egin zuen Arabako Hirigintza Batzordeak, urriaren 21eko 9/2002 bilkuran.

OINARRIAK

Lehena.- .- Espediente hau egun indarrean dauden eta 1996ko uztailaren 24an Diputatuen Kontseiluak emandako 15 zenbakiko Foru Dekretuaren bitartez behin betiko onartu ziren Ordezko Arauen berrazterketa dugu.

Bigarrena.- Barrundiako udalerria Arabako Lautadan kokaturik dago, Arabako Lurralde Historikoaren iparrekialdean. Herrigune askotako udalerria da eta etxebizitzak dituzten 13 herrik osatuta dago: Audikana, Dallo, Elgea, Etura, Etxabarri-Urtupiña, Guevara, Heredia, Hermua, Larrea, Marieta-Larrinzar, Maturana, Mendíjur eta Ozaeta.

Ordezko Arauak berraztertzeko agiriak, txostenaren zioen adierazpenen zatia aditzera ematen denez, aurreko arauetako lurralde ereduarekin jarraitzea proposatzen du, baita ere oraingo beharrizanei erantzutea eta indarrean dauden lege eta arauetara eta Lurralde Antolamendurako Zuzentarauetara egokitzea.

Aurkeztutako agiriak aztertu ondoren ikusi denez, agiri grafiko eta idatzietan datorren egitura zuzena da. Halere, konpondu daitezkeen hainbat akats ere ikusi dira. Hona hemen akats horien deskribapena:

Hirugarrena.- Lurzoruaren sailkapena. Lurzoru urbanizagarria.

A. Una vez elaborados los Criterios, Objetivos y Soluciones Generales del Planeamiento, la Corporación procedió, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 125 del Reglamento de Planeamiento, a su publicación, por un periodo de un mes, en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, número 52, del día 10 de mayo de 2000, en el periódico de Álava, del 7 de mayo de 2000, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Analizadas las 71 sugerencias y alternativas formuladas durante el plazo de exposición al público, el Ayuntamiento, en la sesión de fecha 6 de octubre de 2000, confirmó los Criterios, Objetivos y Soluciones Generales de las Normas Subsidiarias con diversas modificaciones.

B. En la sesión plenaria de fecha 3 de noviembre de 2000, el Ayuntamiento acordó aprobar inicialmente el expediente de Revisión de Normas Subsidiarias de Planeamiento y someterlas a información pública por el plazo de un mes, haciéndose efectivo mediante la inserción de los respectivos anuncios en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 140 del 4 de diciembre de 2000, y en el periódico El Correo y El Periódico de Álava, de 3 de diciembre de 2000.

C. Dentro del plazo de exposición al público se presentaron 38 alegaciones que, tras ser informadas por el equipo redactor fueron resueltas por la Corporación. Dado que como consecuencia de la estimación de alegaciones se introdujeron en el documento de Normas modificaciones, que suponen un cambio sustancial en los criterios y soluciones del planeamiento aprobados inicialmente, la Corporación acordó en sesión celebrada el día 5 de octubre de 2001, proceder a la apertura de un nuevo trámite de información pública por el plazo de un mes, anunciado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 124, del día 31 de octubre de 2001 y en el periódico El Correo del día 19 de octubre de 2001.

D. Dentro de este nuevo plazo de exposición al público se presentaron nuevas alegaciones que la Corporación acordó resolver en sesión del día 6 de febrero de 2002.

E. Convocada nueva sesión el día 5 de abril de 2002 la Corporación adoptó el acuerdo de aprobación provisional del expediente de Revisión de Normas Subsidiarias de Planeamiento de Barrundia y dar traslado del mismo a la Diputación Foral de Álava para su sanción definitiva.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado a) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencias de Servicios de las Instituciones Comunes a la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de Urbanismo, el expediente fue informado por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 5/2002 del día 24 de julio.

Cuarto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 9/2002, de 21 de octubre.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente expediente constituye la revisión de las Normas Subsidiarias de Barrundia vigentes, aprobadas definitivamente por Decreto Foral número 15 del Consejo de Diputados del 24 de julio de 1996.

Segundo.- El municipio de Barrundia se encuentra situado en la comarca de la Llanada Alavesa en la zona noreste del Territorio Histórico de Álava, y consta de una estructura polinuclear formada por 13 poblaciones de asentamiento residencial: Audikana, Dallo, Elgea, Etura, Etxabarri-Urtupiña, Guevara, Heredia, Hermua, Larrea, Marieta-Larrinzar, Maturana, Mendijur y Ozaeta.

El documento de Revisión de Normas Subsidiarias propone, tal y como expone en la exposición de motivos de la memoria, el mantenimiento del modelo territorial de las normas anteriores, dando respuesta a las nuevas necesidades y adaptándolo a la legislación y normativa vigentes, así como a las Directrices de Ordenación Territorial.

Tras el análisis de la documentación aportada se ha comprobado que presenta una estructura correcta con respecto a la documentación gráfica y escrita, si bien se han detectado algunas deficiencias subsanables que se describen en los siguientes puntos.

Tercero.- Respecto a la clasificación del suelo. Del suelo urbanizable.

1. Barrundiako Ordezko Arauak berraztertzeko agiriak zazpi eremu proposatzen ditu urbanizatzeko gai den lurzoruan. Horietako sei bizitegietarako dira eta bestea industriarako:

URBANIZATZEKO GAI DEN LURZORUAREN EREMUAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Dallo | BUGL-1- | 10 etx. | 15.544 m$^2$ |
| Etura | BUGL-1- | 11 etx. | 20.070 m$^2$ |
| Etxabarri-Urtupiña | BUGL-1- | 20 etx. | 34.260 m$^2$ |
| Larrea | BUGL-1- | 20 etx. | 31.782 m$^2$ |
| Marieta-Larrinzar | BUGL-1- | 10 etx. | 14.590 m$^2$ |
| Ozaeta | BUGL-1- | 14 etx. | 26.773 m$^2$ |
| | GUZTIRA | 85 etx. | 143.019 m$^2$ |
| IUGL-1 Mendijurreko industriarako lurz | | | 30.000 m$^2$ |

Lurzoru urbanizaezina urbanizatzeko gaitzat birsailkatzeko ez da nahikoa 6/98 estatuko Legearen 8 eta 9 artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzea. Zerbitzu orokorren sareek planteaturiko hazkundeak direla eta sor daitezkeen premiei dagokienez egun dituzten eta etorkizunean izango dituzten ahalmenak ere egiaztatu behar dira. Hori da, hain zuzen, osatu behar dena, eta horretarako agiriei esandako informazioa gehituko zaie.

2. Marieta-Larrinzarko BUGL-1 mugatzerakoan bertara sartzeko etorkizunean egongo den bidea agertu beharko da, bidearen sekzio berria diseinatu ahal izateko eta iadanik dagoen bidearekiko lotunea definitu ahal izateko.

Laugarrena.- Zonatan banatzea eta kalifikazio globala.

A. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordea alde agertu da jarduera ekonomikoetarako erabiltzeko proposatu den 3 ha-ko lurzoruarekin. Halere, egun izapidetzen ari den Arabako Erdialdearen Lurralde Plan Partzialak N-1 errepidean zehar eta Vitoria-Gasteizko ekialdean jarduera ekonomikoetarako lurzoruen asentamenduen ereduen gainean ematen dituen irizpideetan oinarrituta, industria eremua beste toki batera eraman behar dela jotzen da. Toki berri horrek ingurune fisikoa eta paisaia errespetatzea ahalbidetuko du eta bizitegi guneetatik hurbil egongo da.

B. Industriarako urbanizatzeko gai den lurzoru honi (IUGL-1) dagokionez, eremuaren fitxan sektorearen antolaketaren helburua deskribatzen da eta Plan Partziala ezarriko dela adierazten da. 4 urteko epean plana ez bada gauzatzen araudi zehatza proposatuko da.

Horrela bada, puntu hau argitu beharra dago, ez baita ulertzen lehen kasuaren definizio eza edo hutsunea. IUGL-1 lurzoruaren eremua urbanizatzeko gai den lurzorua da eta lurzoru hori, edozein modutan ere, zehaztasunez antolatu beharko da etorkizunean, eta antolatu ere plan partzial baten bitartez. Beraz, eremuaren fitxan plan partzial honen aurretik egin beharreko kalifikazio globalaren parametroak zehaztuko dira. Lurzoru urbanizagarri hau ez da erregimen iraunkorrean edo egiteratzen ari den lurzorua. Beraz, Ordezko Arauek erabilera globala, eraikuntza motak, eraikigarritasuna, okupazioa, solairu kopurua, etab. zehaztuko dituze, hau da etorkizuneko garapen planeamenduak errespetatu beharko dituen eta azpizonatan banatzeko erabiliko diren kalifikazio globalaren parametroak.

C. Agirian ez da inolako informaziorik eta egiaztapenik agertzen horniketa sareeen iturri eta ur emarieei buruz, ez eta hondakin uren kanporaketari buruzkoa ere. Argindarra banatzeko lineen ahalmenaz ere ez du ezertxo ere esaten. Aurretik hitzegin izan da hutsune honetaz, txosten honetako hirugarren oinarrian hain zuzen.

Ordezko Arauek egiaztatu beharko dute iturri eta ur emariak nahiko ahalmena dutela kalifikazio globalaren arabera aurreikusitako hazkundeei begira.

D. Urbanizatzeko gai den lurzoruaren kalifikazio globala, 206. artikuluan datozen eremu fitxetan arautzen baita, gehinezko okupazioaren parametroaz osatu behar da. Parametro hori III. kapituluaren 110. artikuluan definituta dator, alde globalaren ezaugarria da eta.

E. Azterketa ekonomiko eta finantzarioaren arabera erabakiko da etorkizunean Ozaetako iparraldean dagoen aisiarako zonan espazio libreen sistema orokorra lortu beharko den ala ez. Dena den, agiri grafikoetan sistema hori mugatu beharko da lurzoru urbanizaezinaren kalifikazio globalari eta zonatan banatzeari buruzko planoan.

Bosgarrena.- Hiri lurzoruaren antolaketa eta kalifikazio xehekatua.

A. Estatuko 6/98 Legeak, lurzoruaren jaurbideari eta balorazioari buruzkoak, 14. artikuluan hiri lurzoruaren jabeen eginbeharrak bereizten ditu, urbanizazioak sendotutako hirilurzorua edo sendotu

1. El documento de Revisión de Normas Subsidiarias de Barrundia propone siete ámbitos de suelo apto para urbanizar, seis de los cuales son residenciales y uno industrial:

ÁMBITOS DE SUELO APTO PARA URBANIZAR

| | | | |
|---|---|---|---|
| Dallo | SAUR-1- | 10 viv. | 15.544 m$^2$ |
| Etura | SAUR-1- | 11 viv. | 20.070 m$^2$ |
| Etxabarri-Urtupiña | SAUR-1- | 20 viv. | 34.260 m$^2$ |
| Larrea | SAUR-1- | 20 viv. | 31.782 m$^2$ |
| Marieta-Larrinzar | SAUR-1- | 10 viv. | 14.590 m$^2$ |
| Ozaeta | SAUR-1- | 14 viv. | 26.773 m$^2$ |
| | TOTAL | 85 viv. | 143.019 m$^2$ |
| SAUI-1 industrial de Mendijur | | | 30.000 m$^2$ |

Para la reclasificación del suelo no urbanizable al apto para urbanizar no basta con el cumplimiento de las condiciones establecidas en los artículos 8 y 9 de la Ley estatal 6/98. También es necesario justificar las capacidades, actuales y futuras, de las redes de servicios generales a acuerdo con las demandas previsibles en los crecimientos planteados, aspecto que deberá subsanarse completando la documentación con la información referida.

2. La delimitación del SAUR-1 de Marieta-Larrinzar deberá incluir el vial de futuro acceso al mismo con el fin de diseñar la nueva sección del mismo así como la definición del enlace con la vialidad existente.

Cuarto.- Respecto a la zonificación y calificación global.

A. La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco ha valorado favorablemente la cuantificación de suelo de actividades económicas con respecto al ámbito propuesto de 3 has. Sin embargo, partiendo de los criterios del Plan Territorial Parcial de Álava Central, actualmente en tramitación, en lo relativo al modelo de asentamientos de suelos de actividades económicas a lo largo de la N-1, al este de Vitoria-Gasteiz se estima que el ámbito industrial debe reubicarse en otra localización, respetuosa con el medio físico y el paisaje y próxima a un núcleo residencial.

B. En lo referente a este suelo apto para urbanizar industrial SAUI-1, en la ficha de ámbito se describe el objeto de la ordenación del sector, explicando que será de aplicación el Plan Parcial y en el caso de no ejecutarse en un plazo de 4 años se propone una normativa concreta.

Pues bien, deberá aclararse este punto, ya que no se comprende la indefinición o laguna del primer caso. El ámbito del SAUI-1 es un suelo apto para urbanizar que, en cualquier caso, habrá de ordenarse pormenorizadamente en el futuro mediante un plan parcial, y, por tanto, la ficha deberá especificar los parámetros de la calificación global previa a este Plan Parcial. No nos encontramos en el supuesto de un suelo urbanizable en régimen transitorio o en ejecución. Por tanto, las Normas Subsidiarias deberán determinar el uso global, los tipos edificatorios, la edificabilidad, la ocupación, el número de plantas, etc., parámetros de la calificación global que el futuro planeamiento de desarrollo deberá respetar y en función de los cuales determinará la subzonificación.

C. El documento presenta una carencia de información y justificación de las fuentes y caudales de las redes de abastecimiento, evacuación de aguas residuales, así como capacidad de las líneas de distribución eléctrica, aspecto al que se hace referencia anteriormente en el fundamento tercero del presente informe.

Las Normas Subsidiarias deben garantizar que las disponibilidades de las fuentes y caudales son suficientes para los crecimientos previstos de acuerdo a la calificación global.

D. La calificación global del suelo apto para urbanizar, regulada en las fichas de ámbito del artículo 206, deberá completarse con el parámetro de ocupación máxima, definido por otro lado en el artículo 110 del capítulo III, por ser éste un condicionante que caracteriza la zona global.

E. Si bien el estudio económico-financiero determina la futura obtención de un sistema general de espacios libres en la zona recreativa al norte de Ozaeta, se deberá delimitar en la documentación gráfica en el plano de calificación global y zonificación del suelo no urbanizable.

Quinto.- Respecto a la ordenación y calificación pormenorizada del suelo urbano.

A. La Ley estatal 6/98, sobre régimen de suelo y valoraciones, distingue los deberes de los propietarios del suelo urbano en el artículo 14, en función de si se trata de un suelo urbano consolidado por

gabeko hiri lurzorua den ala ez bereiztuta. Azkenengo kasu horretan, lurren jabeek planeamenduak sortarazitako onurak eta zamak banatu beharko dituzte, eta bideak, espazio libreak, berdeguneak, udal dotazio publikoak, eta sistema orokorrak egiteko behar den lurra derrigorrez eta dohainik utzi beharko dute, bai eta lur horiek dauden eremuaren ustiapenaren %10 ere.

Barrundiako udalerriko herrietako hiri lurzorua, gehienetan, urbanizazioak sendotuta daude zati batean, eta azpiegituretan eta bideetan akatsak ikusten dira.

Bestalde, agiriaren arabera, hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria kudeatzeko planetan egikaritzapen unitateak mugatuta datoz, sendotu gabeko hiri lurzoruaren kudaketa eremu gisa. Ondorengo kasuetan egikaritzapen unitateen mugapenak aldatu beharko dira edo, bestela, beste kudeaketa eremu batzuk mugatu, aurretik aipatu dugun estatuko 6/1998 legearen 14. artikuluaren arabera urbanizazioak sendotu gabeko hiri lurzoruan dagoelako:

AUDIKANA EU-7:

UE-7 egikaritzapen unitatearen formaren konfigurazioa eta hondar lur moduan gelditzen den lurzoru mugakidearena direla eta, mugaketa berriz aztertu eta kudeaketa eremu bakar batean bateratu behar dira.

ETXEBARRI-URTUPIÑA EU-5:

Etorkizuneko birzatiketa espedientea idatzi ahal izateko, kalifikazio xehekatuaren planoan unitate honen diseinu zehatzago sartuko da, eta bertan barneko bide bat agertu beharko da, egingo den zatiketarako eta eremuaren fitxan agertzen diren familiabakarreko lau etxebizitzaren kudeaketarako.

OZAETA EU-12:

UE-12 egikaritzapen unitateari dagokionez, dagoeneko bertan dagoen familiabakarreko etxebizitza kendu beharko da kudeaketa eremutik. Izan ere, ez dauka zentzurik, lur hori ez baita unitatean sendotu edo kudeatu beharrekoa.

OZAETA UE-15:

Etorkizuneko birzatiketa espedientea idatzi ahal izateko, kalifikazio xehekatuaren planoan unitate horren diseinu zehatzago bat sartu beharko da, eta bertan barneko bide bat agertu beharko da, egingo den zatiketarako eta eremuaren fitxan agertzen direnetxebizitzen kudeaketarako. SUR-1 lurzorurako ordenantza ere sartu beharko da.

OZAETA EU-20 eta EU-22:

UE-20 unitatea mugatuta dagoen moduan dagoela ez dago sarrera egokia egiteko behar den nahikoa lekua aurrealdean; beraz, unitate bakarra mugatu beharko da, EU-20 eta EU-22 unitateak kudeaketa eremu batean elkartuaz.

HEREDIA EU-7:

Etorkizuneko birzatiketa espedientea idatzi ahal izateko, kalifikazio xehekatuaren planoan unitate horren diseinu zehatzago bat sartu beharko da, eta bertan barneko bide bat agertu beharko da, egingo den zatiketarako eta eremu fitxan agertzen diren etxebizitzen kudeaketarako. SUR-1 lurzorurako ordenantza ere sartu beharko da.

HEREDIA EU-9:

Unitate hori beste modu batera mugatu beharko da, orain arte definituta dagoen bezala ez baitauka sarbide egokirik.

ETURA EU-3:

UE-3 berriz mugatuko da, ez baitauka sarbiderik. Idazle taldeak konponbide gisa proposatzen duenez, unitate horretarako sarbide egokia Eturako UE-3 unitatearekin muga egiten duen SAUR-1 lurraren plan partziala garatzerakoan egin daiteke. Halere, arazo hau hiri lurzoruaren kalifikazio xehekatua egiterakoan konpondu beharko da, urbanizatzeko gai den lurzorua garatu arte hipotekaturik ez gelditzeko.

GUEVARA EU-4:

Eremuaren fitxan akats bat dago unitatearen azaleran. Fitxaren arabera, dagokion ordenantza ezarriaz familiabakarreko hiru etxebizitza egin ahal dira, gutxieneko lurzatia 1.000 $m^2$ -koa izanik eta frontea 20 m-koa.

GUEVARA 17. LURZATIA:

17. lurzatiak ez dauka sarbide egokirik. Beraz, egikaritzapen unitate bat mugatuko da eta bertan antolaketarako sarbide bat emango zaio.

la urbanización o no consolidado. En este último caso, los propietarios deben proceder a la distribución de los beneficios y las cargas derivados del planeamiento, ceder obligatoria y gratuitamente el suelo necesario para viales, espacios libres, zonas verdes, dotaciones públicas locales, sistemas generales, así como el 10% del aprovechamiento del ámbito en el que se encuentran.

El suelo urbano de los núcleos del municipio de Barrundia se encuentra en la mayoría de los casos parcialmente consolidado por la urbanización, con deficiencias en las infraestructuras y la ejecución de los viales.

Por otro lado, en los planes de gestión del suelo urbano y urbanizable, el documento presenta la delimitación de unidades de ejecución, como ámbito de gestión en el suelo urbano no consolidado. En los siguientes casos se deberá proceder a modificar las delimitaciones de las unidades de ejecución o bien delimitar nuevos ámbitos de gestión por pertenecer al suelo urbano no consolidado por la urbanización estipulado en el artículo 14 de la ley estatal 6/1998, citada anteriormente:

AUDIKANA UE-7:

La configuración de la forma de la unidad de ejecución UE-7 y la que resulta colindante como suelo residual conlleva una reconsideración de esta delimitación refundiéndolas en un único ámbito de gestión.

ETXEBARRI-URTUPIÑA UE-5:

Con el fin de posibilitar la redacción del futuro expediente de reparcelación, el plano de calificación pormenorizada deberá incluir un diseño más detallado de esta unidad contemplando un vial interior para la posible parcelación y gestión de cuatro viviendas unifamiliares que se asigna en la ficha de ámbito.

OZAETA UE-12:

Con respecto a la unidad de ejecución UE-12 deberá excluirse del ámbito de gestión la vivienda unifamiliar existente en la misma ya que carece de sentido incluirla no aportando suelo a consolidar o gestionar en la misma.

OZAETA UE-15:

Con el fin de posibilitar la redacción del futuro expediente de reparcelación, el plano de calificación pormenorizada deberá incluir un diseño más detallado de esta unidad contemplando un vial interior para la posible parcelación y gestión de las viviendas que le asigna la ficha de ámbito, así como la ordenanza SUR-1.

OZAETA UE-20 y UE-22:

Considerando que tal y como se encuentra delimitada la UE-20 no consta del frente necesario para materializar un acceso adecuado, se deberá delimitar una única unidad con la colindante, refundiendo la UE-20 y la UE-22 en un único ámbito de gestión.

HEREDIA UE-7:

Con el fin de posibilitar la redacción del futuro expediente de reparcelación, el plano de calificación pormenorizada deberá incluir un diseño más detallado de esta unidad contemplando un vial interior para la posible parcelación y gestión de las viviendas que le asigna la ficha de ámbito, así como la ordenanza SUR-1.

HEREDIA UE-9:

Se deberá proceder a realizar una nueva delimitación de esta unidad ya que, tal y como se encuentra definida, carece de un acceso adecuado.

ETURA UE-3:

Se redelimitará la UE-3, ya que no tiene acceso. El equipo redactor aporta la solución de dotar de un acceso adecuado cuando se desarrolle el plan parcial del SAUR-1 colindante con la UE-3 de Etura, sin embargo esta cuestión deberá solucionarse en la calificación pormenorizada del suelo urbano, con el fin de que no quede hipotecada hasta el futuro desarrollo del suelo apto para urbanizar.

GUEVARA UE-4:

En la ficha de ámbito hay un error en la superficie de la unidad, de la cual se deduce que aplicando la ordenanza correspondiente se podría permitir tres viviendas unifamiliares con una parcela mínima de 1.000 $m^2$ y un frente de 20 m.

GUEVARA PARCELA 17:

La parcela 17 carece de un acceso adecuado. Por tanto se delimitará una unidad de ejecución proporcionándole un acceso en la ordenación.

MARIETA-LARRINZAR 61. LURZATIA:

Egikaritzapen unitate bat mugatuko da, estatuko 6/1998 Legearen arabera urbanizazioak sendotuta dagoen hiri lurzorua delako.

MENDIJUR EU-1:

Beharrezkoa bada, unitatea berriro diseinatu eta eremuaren fitxaren kalifikazio xehekatu berria emango da; izan ere, urtegiaren 30 metroko atzera egiteko lerrokadura planoa gainean jartzean ezinezkoa baita xedatutakoa betetzea.

B. Hirigintzako arauetako V. idazpuruan, VII. kapituluaren 80. eta 90. artikuluetan lurzoruaren erabilera motak deskribatzen dira eta erabilera mota bakoitzean egin daitezkeen eraikin motak definitzen dira orohar.

Horrela bada, baimenduta dauden eta VI. idazpuruan aipatzen diren Barrundiako unitateen fitxetan benetan erabili diren eraikin motek lehenengoekin duten harremana ezarri beharko da, mota bakoitzeko ñabardurak eta zehaztasunak adieraziz.

C. Espedienteak apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, hiri ingurune, espazio publiko, eraikuntza eta informazio eta komunikazio sistemetarako sartzeko baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak, dioena betetzen dela erakutsi beharko du. Era berean, idatzizko agiriak ere osatu beharko dira eta arau horiek nola ezarri aipatu ere, sarbidegarritasuna bultzatzeko abenduaren 4ko 20/1997 legea garatzearren.

Ondorioz, hirigintzako arauetan herri jabari eta erabilerako lurzoruari eta bide komunikazioei buruzko artikuluak, espaloiek gutxienez 1,80 metroko zabalera izan behar dutela diotenak, aipatutako dekretuaren 3.2 artikuluan ezarritakora egokituko dira.

D. Egikaritzapen unitateen fitxeei degokienez, zehaztu behar da lurzati sendotuetan finkaturiko eraikitako azalera eta eraikita dagoena azalera bera direla.

E. Gehieneko eraikigarritasunaren parametroa, fitxetan datorrena (hiri lurzoruaren ordenantzetan bezala eraikigarritasun garbitzat jotzen dena) egikaritzapen unitatean, kudeaketa eremu gisa, gehienez onartzen den eraikitako azalerari buruzko informazioaz osatu beharko da, edo unitate osoaren azaleraren eraikigarritasun gordinaren informazioaz, onura eta zamak banatzeko etorkizunean egingo den birzatiketa proiektuak indarreko legeriak aurreikusitako lagapenak alde batera utzita izango duen gutxieneko azalera zein den adierazi behar da.

Seigarrena.- Lurzoru urbanizaezina zonatan banatzea eta kalifikatzea.

A. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Sailak agiriaren aldeko txostena egin du baina zenbait baldintza jarri du lurzoru uirbanizaezina zonatan banatzeari buruz:

1. Balio zientifiko edo natural bereziko zona babestutzat (Z1 zona) kalifikatuko dira “Ramsar Hezegune”an sartutako lurrak, Ullíbarri-Gamboako urtegiaren atzealdea, Parke Ornitologikoko ekosistemak eta Garaioko Parkearen zati bat Ramsar Hitzarmenean Hegaztientzako Garrantzia duen Nazioarteko Hezegunetzat jotzen direlako. Izan ere, hori 2002ko otsailaren 5ean Eusko Jaurlaritzak egindako proposamena da eta 2002ko irailaren 27ko Ministroen Kontseiluak hartutako erabakiz berretsi zen.

2. Agiriak nekazaritzako zona babestutzat (Z12) kalifikatzen du Garaio Probintziako Parkea, izan ere, lehengo arauetatik datorkio izendapen hori. Natura-balio handiko lur hauek egokituta daude naturarekin eta ingurumen hezkuntzarekin harremana izatera bideraturiko jolas erabilera bigunerako. Egun, erabilerak antolatzeko plan berezi bat egiten ari da, ekologia eta paisaia balioak babestu eta egungo jolas erabilerarekin bat egiteko.

Aurreko guztia dela-eta, Garaioko Parkearen arean nekazaritzako zona babestuko (Z12) kalifikazioaren ordez ingurune fisikoa babesteko plan berezira igorritako planeamenduko eremuaren zonaren kalifikazioa jarriko zaio.

3. Garaioko parkearen ondoan dagoen Maturanako Aldaiako ezkameztiak ezohiko balio zientifiko edo natural bereziko zona babestuaren kalifikazioa izango du Zadorrako atzealdearen ezkerreko ertzean.

4. Berdeguneetako urbanizazio proiektuei buruzko atalean (15. artikulua, 1. idatz-zatia) landare espezie onargarriak adierazten dituen

MARIETA-LARRINZAR PARCELA 61:

Se delimitará una unidad de ejecución ya que se trata de un suelo urbano no consolidado por la urbanización según el artículo 14 de la ley estatal 6/1998.

MENDIJUR UE-1:

Se procederá a rediseñar la unidad si es necesario y aportar la nueva calificación pormenorizada de la ficha de ámbito ya que, al superponer el plano de alineaciones de retiro de 30 metros del embalse, resulta imposible cumplir las determinaciones de la misma.

B. Los artículos 80 y 90 del capítulo VII del título v de las normas urbanísticas describen las clases de los distintos usos del suelo, así como la definición de los tipos edificatorios de cada uno de ellos de manera genérica.

Pues bien, los tipos edificatorios permitidos y realmente utilizados en las fichas de unidades de Barrundia del título VI deberán establecer una correspondencia con los primeros, matizando y especificando dentro de cada clase.

C. El expediente deberá justificar el cumplimiento del Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad en los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación, así como completar la documentación escrita haciendo referencia a su aplicación como desarrollo de la ley 20/1997, de 4 de diciembre, sobre la promoción de la accesibilidad.

Como consecuencia, los artículos de las normas urbanísticas referentes al suelo de dominio y uso público y comunicaciones viarias, en las cuales se establece una anchura mínima de acera de 1,80 metros, deberán adaptarse a lo estipulado en el artículo 3.2 del citado decreto.

D. Respecto a las fichas de unidades de ejecución se deberá especificar que la superficie construida fijada en las parcelas de tipo consolidada es la superficie construida existente.

E. El parámetro de edificabilidad máxima aportado en las fichas (se supone como neta al igual que en las ordenanzas del suelo urbano) se deberá completar con la información de superficie construida máxima permitida en la unidad de ejecución como ámbito de gestión, o bien con la edificabilidad bruta con respecto a la superficie total de la unidad, con el fin de posibilitar y gestionar adecuadamente el futuro proyecto de reparcelación de reparto de beneficios y cargas. De la misma forma, se deberá aportar la superficie mínima de la parcela bruta sin descontar las cesiones previstas en la legislación vigente.

Sexto.- Respecto a la zonificación y calificación del suelo no urbanizable.

A. El Departamento de Agricultura y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava ha informado favorablemente el documento si bien establece algunos condicionantes referentes a la zonificación del suelo no urbanizable:

1. Se calificarán como Z1 zona de protección de excepcional valor científico y/o natural los terrenos incluidos en el ámbito del “Humedal Ramsar”, ya que la cola sur del embalse Ullíbarri-Gamboa, los ecosistemas del Parque Ornitológico y una parte del Parque de Garaio están considerados como Humedal de Importancia Internacional para las aves del Convenio Ramsar, propuesta del Gobierno Vasco de 5 de febrero de 2002 y ratificado por Acuerdo del Consejo de Ministros de 27 de septiembre de 2002.

2. El documento califica el Parque Provincial de Garaio como zona de protección agrícola (Z12), calificación que viene de las Normas anteriores. Estos terrenos de gran valor naturalístico se encuentran acondicionados para un uso recreativo blando destinado a fomentar el contacto con la naturaleza y la educación ambiental. Actualmente se está elaborando un Plan Especial de ordenación de usos en el ámbito del Parque, con el objeto de proteger los valores ecológicos y paisajísticos y compatibilizarlo con el uso recreativo actual.

Por todo lo anterior, en el área del Parque de Garaio se sustituirá la calificación de zona de protección agrícola Z12 por zona de ámbito de planeamiento remitido a Plan Especial de protección del Medio Físico.

3. En cuanto al quejigal de la Aldaya de Maturana situado junto al parque de Garaio en la margen izquierda de la cola del Zadorra se calificarán como Zona de Protección de excepcional valor científico y/o natural de uso tradicional.

4. En la sección correspondiente a los proyectos de urbanización de zonas verdes, artículo 15 apartado 1, se incluye una lista

zerrenda bat dago. Zerrenda hori ez da jaso behar, eragotzi egiten baitu zerrenda horretaz kanpoko zenbait espezie autoktono eta balio apaingarri edo didaktiko handiko beste espezie aloktono batzuk landatzen, nahiz eta interesgarriak izan daitezkeen.

B. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordeak honako baldintzak ezarri ditu lurzoru urbanizaezinaren inguruan:

1.Ordezko Arauen 24. artikuluak, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioaren gainekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko 3/1998 Lege Orokorrari buruzko aipamenak jaso beharko ditu; izan ere, EAEri prozedura hori arautzeaz gain ingurumenaren eraginaren ebaluazio mota desberdinen mende dauden proiektuen zerrenda jasotzen du lege horrek I Eranskinean.

2. EAEko Zona Hezeen Sektoreko Lurralde Planak 200. artikuluan ("–Pr zona– Ur-isurien eta -bilguneen zona babestuak") egiten dituen aipamenei dagokienez, adierazi behar da "Mendixurreko atzealdea" ez dela II. Taldekoa (SLP-aren antolamendu-eremua), baizik eta III. Taldekoa (SLP-aren eranskina). Hortaz, zuzendu beharra dago.

3. Ullibarriko urtegia, Zadorra ibaia, Urrunaga eta Aizkorriko areak Elkarteko Interesa duen Lekutzat (EIL) proposatu izan dira 2000ko Natura Sarea osatzearren. Horrela bada, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren 97-12-23ko eta 00-11-28ko erabakien bidez, ondorengo hauek xedatutakoa beteko da: Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako 92/43/EEE arteztarauak 2., 3. eta 4. idatz zatietan eta abenduaren 7ko 1997/1995 Errege Dekretuak, biak habitat naturalak eta basa animaliak eta landareak kontserbatzeari buruzkoak.

4. Hiri hondakin solidoak kentzeari dagokionez, Ordezko arauek etorkizuneko erabilera hori aurrez ikusten dute 62. eta 201. artikuluetan; hortaz, kalifikazio osoaren planoan erabilera oso hori zonifikatu beharko da.

5.- Dauden akuiferoekiko (planoan daude 1/25.000 eskalan adierazita) zaurgarritasun ertaineko, handiko edo oso handiko zonak baldintza gainjarri gisa adieraziko dira ondoko planoetan erabilerak eta jarduerak arautzeko: lurraldearen kalifikazio osoko edo egitura orokorreko eta organikoko kalifikazio planoan eta lurzoru urbanizaezinaren zonakatze planoan (1/5.000 eskalan).

Zazpigarrena.- Bideak.

Herrilan eta Hirigintza Saileko Plangintza, Proiektu eta Obra Zerbitzuak agiriaren txostena egin eta zenbait aldaketa ezarri du. Aldaketa horietatik baldintza batzuk sortzen dira:

1. Planoak eguneratu egin behar dira, baldin eta Foru Sareko errepide zati bat agertu eta leku horretan Foru Aldundi honek oraintsu jarduketaren bat egin badu, edo onetsitako proiektu baten arabera egitea aurrez ikusita badago. Horrela bada, proiektu hauen jarduketak jaso behar dira:

- "A-3014 errepidea 20,500 km-tik 26,590 km-ra, Marietaren eta Landaren artean, egokitzeko eraikuntza proiektua".

- "Guevarako (Araba) sarbidea den A-4013 errepidean trazadura hobetzeko eta plataforma zabaltzeko eraikuntza proiektua".

2. Zaintza eremu desberdinetarako egiten den bezalaxe, Hirigintzako araudiaren 203. artikuluan zehaztu egingo dira aipatzen dituen eraikuntzaren eta zerbitzu orokorren muga-lerroak, Arabako Lurralde Historikoaren Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauari jarraituz.

Era berean, zehaztu egingo dira Foru Arauak 134. eta 203. artikuluetan itxiturei buruz hartutako erabakiak.

3. 205. artikuluan zehaztu egingo da lurzati-itxiturak beti Jabari Publikoko Zonatik kanpo jarriko direla edonolako sare mota izanda ere.

4. Audikana:

- A-4004 errepidearen ardatzetik 11,50 metrotara errepidearen eraikuntza lerroak ezarriko dira, berorrekin mugakide diren bizitegietarako lurzoruaren zatietan. EU-1 eta EU-9 arteko zatiko A-4004 biraketa-erradioaren arazoa konpontzeko proposamena aurkeztuko.

- Aurrez ikusi den saneamendu sarea zerbitzu orokorren lerrotik igaroko da A-4004 errepideari dagokionez; beraz G-1 planoan zuzenketa egingo da.

de especies vegetales admisibles, que deberá omitirse, ya que impide la plantación de algunas especies autóctonas que no han sido recogidas en la lista, así como de otras alóctonas de gran valor ornamental y/o didáctico, que pueden resultar interesantes.

B. La Comisión de Ordenación de Territorio del País Vasco ha establecido las siguientes condiciones con respecto al suelo no urbanizable:

1. El artículo 24 de las Normas Subsidiarias, referente a la Evaluación de Impacto Ambiental, deberá incluir las referencias a la Ley 3/1998 General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco que, además de regular dicho procedimiento a la C.A.P.V., establece en su anexo I la lista de proyectos que están sometidos a las distintas tipologías de evaluación de impacto ambiental.

2. En cuanto a las referencias que se hacen en el artículo 200 - Zona Pr- "Zona de Protección de los cursos y masas de agua" el Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas de la CAPV, cabe señalar que "la Cola de Mendijur" no pertenece al Grupo II (ámbito de ordenación del PTS) sino al Grupo III (anexo del PTS), aspecto éste que deberá subsanarse.

3. En lo relativo a las Áreas del embalse de Ullíbarri Río Zadorra Urrunaga y Aizkorri, propuestas como zonas LIC (Lugar de Interés Comunitario), de cara a integrar la Red Natura 2000, mediante Acuerdos del Consejo del Gobierno Vasco de 23-12-97 y 28-11-00, se aplicarán los apartados 2, 3 y 4 del artículo 6 de la Directiva 92/43/CEE del Consejo de 21 de mayo de 1992, y Real Decreto 1997/1995, de 7 de diciembre, relativos a la conservación de hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres.

4. En lo referente a eliminación de residuos sólidos urbanos las Normas Subsidiarias al prever ese futuro uso en los artículos 62 y 201 de la Normativa deberá zonificar este uso global en el plano de calificación global.

5. Las zonas de vulnerabilidad media, alta y muy alta a la contaminación de acuíferos existentes grafiados en el plano a escala 1/25.000 deberán señalarse como condicionante superpuesto para la regulación de usos y actividades en los planos de calificación global o estructura general y orgánica del territorio y zonificación del suelo no urbanizable a escala 1/5.000.

Séptimo.- De la vialidad.

El Servicio de Planificación, Proyectos y Obras del Departamento de Obras Públicas y Urbanismo ha informado el documento estableciendo algunas modificaciones de las cuales se deducen los siguientes condicionantes:

1. Deberán actualizarse aquellos planos en los que se aprecien tramos de carreteras de la Red Foral sobre los que esta Diputación Foral ha llevado a cabo alguna actuación reciente, o tiene previsto realizarla de acuerdo con un Proyecto aprobado. Así, deben recogerse las actuaciones correspondientes los siguientes proyectos:

- "Proyecto de construcción de acondicionamiento de la carretera A-3014, P.K. 20,500 a P.K. 26,590, entre Marieta y Landa".

- "Proyecto de construcción de mejora de trazado y ampliación de plataforma de la carretera A-4013 de acceso a Guevara".

2. Dentro de la Normativa Urbanística, en su artículo 203, deberá especificarse la definición de la línea límite de edificación y la de servicios generales, ambas citadas en el referido artículo, de acuerdo con la Norma Foral 20/1990, de 25 de junio, de Carreteras del Territorio Histórico de Álava, de la misma forma que se hace para las distintas zonas de policía.

Asimismo, se especificarán las determinaciones de la Norma Foral referentes a los cerramientos en los artículos 134 y 203 de la normativa.

